

Ekitaldi ugari Gernikako bonbaketaren 58. urteurrenean

I.U. / BILBO

Gernika Batzordeak filme proiektzio bat, hitzaldiak eta bi erakusketa egingo ditu egunotan Gernikako bonbaketaren 58. urteurrena gogorarazteko. Atzo hasi ziren ekitaldiak, 'La tierra y el cielo' filmak emanez, eta asteazkena arte iraungo dute, 'Autodeterminazioaren izenburupean.

Juan Izagirre eta Fidel Arejitak atzo azaldu zuten ez gizarte eskakizunetan, Maroñoko taldeen izpiratuan eta alderdi politikoaren artean autodeterminazioaren inguruko kezka gero eta hedatuago dago, eta hori izan da arrazoa eslogan hori aukeratzeko. Aurrikusitako mahainguru biak ere gai honi lotutakoak izango dira.

Astelehenean Txabi Ikobalitzeta antropologoak autodeterminazioa eta diferentzia izango ditu solasgai. Saio berean Kepa Landa abokatuak autodeterminazioa eta zuzenbidearen arteko lotura aztertuko du. Saio hau arratsaldeko zazpi terdian hasiko da Gernikako Kultur Etxean.

JOE AUSTIN GERNIKAN Ipar Irlandako negozio-zio eta bake prozesuaren lekukotasun zuzena emateko helduko da Joe Austin, Sinn Fein-eko zuzendaritzako partaidea. Berari autodeterminazioa eta bakearen arteko erlazioa aztertzea proposatu diote. Hitzaldi hau apirilaren 26an, asteazkena, izango da aurrekoaren toki eta ordu berean.

Belfasteko zinegotziaren aurretik mintzatuko den Alberto Gabikago-geaskoak Maroñoko elkarriketetan parte hartu duen elkarteek Gernika Batzordeak aurkeztu dizkien txostenen berri emango du.

Hitzaldi honen amaieran Foruen Plazatik manifestazio bat abiatuko da kandeekin Gernikako kaleak zeharkatzeko. Bonbaketaren urteurrean erakusketa bi egongo dira Foruen Enparantzan: bata Europako herri bonbakatuen argazki erakusketa eta bestea iaz zortzi euskal margolarik Pablo Picassoren 'Guernica' koadro historikoaz egin zuten interpretazio librea.

Hautetsien Kontseiluak Leader programei ekinen die Iparraldean

Lurralde proiektua aurten prest egonen da, Boursek atzera égin arren

Ipar Euskal Herriko Hautetsien Kontseiluak Europako laguntzak lortzeko Leader programaren proposamena lantzea erabaki du bere lehen lan bileran. Dagoeneko François Boursek prest izan behar zuen lurralde proiektua bertze bati galdegitea erabaki dute, Boursek atzera egin baitu. Gas naturala banatzeko plangintza berria lantzen dihardute.

HUR GOROSTIAGA / BAIONA

Ipar Euskal Herriko parlamentariak, ministroak eta auzapezen ordezkariak biltzen dituen Hautetsi Kontseiluaren lehen lan bilera egin zuten ostegun afartsean Baionako Bakea etxean. Ekaineko hauteskunde hurbiltasuna dela eta, eginkizunak aski mugatuak dira beraiek ere onartu dutenez, baina hala ere zenbait puntu landu dituzte.

Ipar Euskal Herriko egitura sozio-politiko eta ekonomikoaren azterketatik abiatuz lurralde proiektuaren prestaketan jardun behar zuten François Boursek. Hala hasi zen joan den urriaren 23an EGUNKARIARI «kasik bukatua» zuten lanaren ardatz nagusiak azaldu baitzituen elkarrizketa bidez. Egun, aldiz, badirudi ez dela gogoeta horiek idatzietan gauzatzeko gai izan, eta hartu duen beranta dela medio Hautetsien Kontseiluak lan hori beste-enganatzea erabaki du. Lurralde proiektua «urte bukarako prest»



François Boursek prestatu behar zuen lurralde proiektua.

H. G.

egonen dela azaldu zuen atzo Jean Jacques Lasserrek, Hautetsien Kontseiluko lehendakariak, dagozkion lurralde antolaketarako proposamen guztiekin batera. Gisa horretan eta orientabide nagusietan oinarriturik, plangintza gobernuari bideratuko zaio Pasquaren Lurralde Antolakuntza deitu proiektuaren baitan beharrezkoak diren neurriak har dituzan. Estatuaren ordezkari den Bernard Mairek, Baionako suprefet berriak, «prespektiba onak» aurkeztu dituela azaldu zuen Lasserrek.

Ipar Euskal Herriko garapen laguntzei so eginik beti ere, Hautetsien Kontseiluak Europako Leader II programen laguntzak lortzeko txostena prestatuko du. Aitzinetik xedea agertu bazuten ere, osteguneko bilkuran lan talde bat eratzea delibatu zuten, asmo hori aitzina eramateko. Europako '2 helburu' eta '5B helburu' programak eskualdeka dirulaguntza emateko baldin ba-

dira, Leader II programek berriz eskualdeen arteko harremanak sare baten gisara eratzeko aukerak ematen dituzte dirulaguntzen bidez. Gisa horretan Ipar Euskal Herriko barnealdeko eskualdeak beren artean lotu eta kostaldearekin batera proiektu amankomunari begira lan egin nahi du Hautetsien Kontseiluak.

Eguneko gaien artean Laborantza Ganbara ere aipatu zuen Lasserrek, «egungoa deszentralizazio eskasagatik desegokia» dela errateko. Horrez gain, Euskal Departamenduaren sorrerarekin lotu zuen, «ELB eta FDSEaren arteko adostasunak» atzeman behar direla gaineratzeko. Azkenik, unibertsitatearen gaia BABKO auzapez guztiekin tratatu du Garapen Kontseilutik jalgitako talde batek. «Herri bozen ondoren oinarri batu batetik lanean hasteko erantzun oso baikorra jaso dugu», azaldu zuen Jean Jacques Lasserrek.

Jarrai: «Gonzalezek GALen miseriak ezkutatu nahi ditu»

M. LIZARRALDE / DONOSTIA

Felipe Gonzalezek terrorismoaren apologia aintzat hartu behar dela esaten duenean, bere helburua «GALen miseriak estaltzea» dela esan zuten atzo Jarrai gazte erakundeko bozeramaileek. Era berean, adierazpen hauek Jarrairen ildo politikoa aldatzeko ez dutela balioko adierazi zuten.

Mikel Zubimendi Jarraiko arduradunak adierazi zuenez, «azken aldian honetan ideia abertzale eta independentisten inguruan sortu den kriminalizazioa gero eta handiago da, eta ez dira kasualitateak Bilboko epaitegien dagoen prozesu judiziala edo Gonzalezek eginiko adierazpenak». Gubernuburuak «ezker abertzalearen kontra egitean dituen helburuak» ere aipatu zituen

Zubimendik. «Batetik, ezker abertzalearen kriminalizazioa bilatzen du, eta bestetik PSOEK GAL auzian dituen miseriak ezkutatu nahi ditu».

Horren aurrean, gazteak «presioak eta mehatxuak» jasatera ohituta daudela, eta Jarraik mehatxuak izan arren bere iritzia eta azterketa politikoak ez dituela isilduko esan zuen. Zubimendiren ustez, «ezker abertzaleak borrokan legitimazio sakona dauka, eta dudarik gabe PSOEK horrelako mehatxuekin ez du isilaraziko ezker abertzalea, Jarrai, eta oro har Euskal Herriaren sektore zabalak bere bidea egiteko daraman ahalegin eskuabalar hori».

Aznarren aurkako atentatuari dagokionez, HBko diputatuak Jarrairen ikuspuntua agertu zuen. «Gure ustez gai honek



Mikel Zubimendi, Jon Salaberria eta Iker Casanovas.

E. KOCH

duen erantzunik egokiena EGUNKARIARI argitaratu zuen elkarriketetan aurkitzen da».

Bestalde, Aste Santuan Jarraik burutu duen mendi marxa oso arrakastatsutzat jo zuten gazte erakundeko bozeramaileek. Ekitaldi honek gazte mugimenduen osasun ona erakustez gain, Jarraik lehenagotik zuten

Mayor Zaragoza: «Alde guztien inplikazioa behar da konponbidean»

BILBO

Gernika Gogoratuz fundazioak antolatutako Kultura eta Bakearen V. Jardunaldiak Federico Mayor Zaragoza Unescoko zuzendari nagusiaren mezuarekin zabaldu ziren atzo Gernikan. Jardunaldiok «gerraren kulturatik bakearen kulturara pasatzeko abagune historikoan» antolatu direla adierazi zuen Mayor Zaragoza, eta prozesu horretan Gernikak, Hiroshima, Nagasaki eta Dresden bezala, «toki berezia» duela azpimarratu zuen.

Unescoko zuzendariak esan zuenez, «gatazkaren behin-betiko konponbidea ez da inoiz biolentziaren bidez etorriko». «Bakearen kulturaren gakoia lehia kooperazio bihurtzean datza, inplikaturiko alde guztiek etekina jaso dezaten moduan aztertuz gatazka. Horrek gatazkan inplikaturiko alde guztien erantzun moduan aztertuz gatazka. Horrek gatazkan inplikaturiko alde guztien erantzun moduan aztertuz gatazka. Horrek gatazkan inplikaturiko alde guztien erantzun moduan aztertuz gatazka.

Unescoren ustez, bakearen kultura posible da. Horrek esan nahi du «partehartzea bultzatu eta beste duen demokraziaren kultura ezartzea, gatazka biolentziara jo gabe aztertze joerak ezartzea gizartearen, gizonezkoen eta emakumezkoen arteko berdintasuna ezartzea, eta boterea kooperazio gisa berriz zehaztea».